



OIARTZUNGO
UDALA

OIARTZUNGO UDALERRIAN UDAL-HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA	ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE RECOGIDA Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS MUNICIPALES EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE OIARTZUN
ZIOEN AZALPENA	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS
<p>Estatuaren oinarritzko legeak ezartzen du, batetik herritarrek eskubidea dutela pertsonaren hazkunderako ingurune egokiaz gozatzeko eta baita hura iraunarazteko betebeharra ere, eta bestetik botere publikoek, berezko baliabide guztien erabiltze arrazionala zaintzeko eta bizitza kalitatea hobetu eta babesteko, ingurumena berriztatuz eta defendatuz, elkartasun kolektiboan oinarrituz.</p>	<p>La ley básica del Estado establece, por un lado, el derecho de la ciudadanía a disfrutar de un medio ambiente adecuado para el desarrollo de la persona, así como el deber de conservarlo y, por otro, la obligación de los poderes públicos de velar por la utilización racional de todos los recursos naturales, con el fin de proteger y mejorar la calidad de la vida y defender y restaurar el medio ambiente, apoyándose en la indispensable solidaridad colectiva.</p>
<p>Europako hainbat zuzentarau eta hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua Estatuko ordenamenduan txertatzeko beharra zegoen. Zuzentarau horiek, besteak beste, ekonomia zirkularrean aurrerapausoak ematen zituzten, hierarkia-printzipioaren aplikazioa indartzen zuten tresna ekonomikoak nahitaez erabiliz, hondakinen prebentzioa indartzen zuten, sortzailearen erantzukizun hedatuari buruzko baldintzak ezartzen zituzten, eta erabilera bakarreko plastikoei buruzko betebeharrak ezartzen zituzten.</p>	<p>Existía la necesidad de incorporar al ordenamiento del Estado varias directivas europeas y la Directiva Marco de residuos, mediante las cuales, entre otras cosas, se avanza en la economía circular, se refuerza aún más la aplicación del principio de jerarquía mediante la obligatoriedad del uso de instrumentos económicos, se fortalece la prevención de residuos, se fijan los requisitos mínimos obligatorios que deben aplicarse en el ámbito de la responsabilidad ampliada del productor/a y se establecen obligaciones sobre plásticos de un solo uso.</p>
<p>Premisa horretatik abiatuta, eta araudi hori barne-ordenamenduan txertatzeko asmoz, Ekonomia Zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea onartu zen, oro har oinarritzko legeriaren izaerarekin.</p>	<p>A partir de esta premisa, y con el fin de incorporar esta normativa al ordenamiento interno, se aprueba, con carácter de legislación básica, la Ley 7/2022, de 8 de abril, de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular.</p>
<p>Aipatu Legeak 12.5 artikuluan ezartzen ditu toki-erakundeek eskumenak hondakinen arloan, eta, horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b), 26.1 a) eta 84. artikuluetan eta Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. 8) 10 eta 17) artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1 b) zenbakian xedatutakoa zehazten du.</p>	<p>La citada Ley establece en su artículo 12.5 las competencias de las entidades locales en materia de residuos, concretando así lo dispuesto en los artículos 25.2 b), 26.1 a) y 84 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en los artículos 17. 8) 10 y 17), así como en la disposición adicional primera, apartado 1 b) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>25. artikuluan berriz, hondakinak bereizita biltzeko beharra eta bereizita berrerabiltzeko eta birziklatzeko bildutako hondakinak (salbuespenak salbu) errausteko debekua ezartzen ditu.</p>	<p>Por su parte, el artículo 25 establece la obligación de recoger por separado los residuos y la prohibición de incinerar los residuos recogidos de forma separada para su preparación para la reutilización y para su reciclado, salvo excepciones.</p>
<p>Legearen arabera, toki-erakundeek beren ordenantzen bidez egokitzen jotzen dituzten hondakin-atal guztiak bereizita jaso behar dituzte, gutxienezko batzuk finkatuz.</p>	<p>La ley dispone que las entidades locales establecerán la recogida separada de las fracciones de residuos que consideren oportunas a través de sus ordenanzas, fijando unos mínimos.</p>
<p>Biohondakinei dagokienez, Legeak neurri espezifikoak hartzeko betebeharra ezartzen du, tratamendu biologikoaren bidez bereizi eta birziklatu ahal izateko, etxeko edo komunitateko konpostaje bidezko jatorriko tratamendua barne, horrez gain, etxeko edo komunitateko konpostajearen bidez jatorrian bereiztea eta birziklatzea, biohondakinen bilketa bereiztea dela aitortzen du.</p>	<p>En cuanto a los biorresiduos, la Ley establece la obligación de adoptar medidas específicas que permitan su separación y reciclaje a través del tratamiento biológico, incluido el tratamiento en origen mediante compostaje doméstico o comunitario, entendiéndose también como recogida separada de biorresiduos la separación y reciclado en origen mediante compostaje doméstico o comunitario.</p>
<p>Hortaz aparte, Legeak aipamen berezia egiten dio atez ateko bilketa modalitateari, eta espreski aitortzen du sistema hau eraginkorrenen eta arrakastatsuenen eredu egiaztatu bat dela, eredu hori lehenesteko beharra adieraziz.</p>	<p>Asimismo, la Ley hace una mención especial a la modalidad de recogida puerta a puerta y reconoce expresamente que este sistema es uno de los modelos de recogida más eficientes y de éxito comprobado, señalando la necesidad de priorizarlo.</p>
<p>Hondakinen lege berriak hondakinak kudeatzeko sistema arautzeko premiari erantzuten dio, hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuz, kalitatezko birziklapena bultzatuz, jatorriko gaikako bilketa eta bereizketa egokian oinarrituta egungo joera geldiarazteko eta alderantzizatzeko, bai eta prozesu osoan hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko ere, giza bizi-kalitatea edo osasuna kaltetu gabe, eta Ingurumena arriskuan ez jartzeko edo ez kaltetzeko.</p>	<p>La nueva ley de residuos responde a la necesidad de regular el sistema de gestión de residuos, fomentando la minimización, la reutilización y el reciclaje de los mismos, impulsando un reciclado de alta calidad, basándose en una correcta recogida selectiva y separación en origen para frenar e invertir la actual tendencia, así como garantizar una adecuada gestión de los residuos en todo el proceso, sin perjudicar la calidad de vida o la salud humana y sin poner en peligro o dañar el medio ambiente.</p>
<p>Aipatutako lege-printzipioak betez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko prozedurari jarraituz, ordenantza hau ezartzea erabaki da.</p>	<p>De conformidad con los principios legales citados, y según el procedimiento establecido en el artículo 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se acuerda la aplicación de la presente ordenanza.</p>
<p>Horrek guztiak justifikatzen du araua Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015</p>	<p>Todo ello justifica la adecuación de la norma a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioetara egokitzen dela, eta, horrenbestez, administrazio publikoek premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera jarduteko duten betebeharra betetzen dela.</p>	<p>octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, dando cumplimiento a la obligación de las administraciones públicas de actuar de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.</p>
<p>I. TITULUA</p> <p>XEDAPEN OROKORRAK</p>	<p>TÍTULO I</p> <p>DISPOSICIONES GENERALES</p>
<p><i>1. artikulua. Helburua.</i></p> <p>1. Ordenantza honen helburua da, Udalaren eskuduntzen barruan, Oiartzungo udalerriko udal-hondakinen bilketa eta tratamendua arautzea. Bere helburua da sortutako hondakinen birziklatze-, berrerabiltze- eta gaikako bilketa-tasarik altuenak lortzea, horrekin batera Oiartzungo herriak bere hondakinekin ingurumenari eta giza osasunari eragindako kaltea minimizatuz.</p>	<p><i>Artículo 1. Objeto.</i></p> <p>1. Esta ordenanza tiene por objeto, regular dentro de la esfera de la competencia municipal, la recogida y tratamiento de residuos municipales. Su objetivo es alcanzar la tasa máxima de reciclaje, reutilización y recogida selectiva de residuos generados, minimizando los daños producidos al medio ambiente y a la salud humana por los residuos del municipio de Oiartzun.</p>
<p>2. Era berean, bilketa-zerbitzuen kudeaketa bere gain hartzen duen Udalaren eta zerbitzuak erabiliko dituztenen arteko harremana arautzen du, alde bakoitzaren eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehaztuz.</p>	<p>2. Regula, asimismo, las relaciones entre el Ayuntamiento, que asume la gestión de los servicios de recogida, y las personas usuarias de los mismos; determinando los derechos, deberes y obligaciones de cada una de las partes.</p>
<p><i>2. artikulua. Aplikazio-eremua.</i></p> <p>Ordenantza honen lurralde-eremua Oiartzungo udalerria da.</p>	<p><i>Artículo 2. Ámbito de aplicación.</i></p> <p>El ámbito territorial de la presente ordenanza se refiere al municipio de Oiartzun.</p>
<p><i>3. artikulua. Kudeaketaren arduraduna.</i></p> <p>Udal-hondakinen kudeaketa Oiartzungo Udalarri dagokio.</p>	<p><i>Artículo 3. Responsabilidad de la gestión.</i></p> <p>La gestión de los residuos municipales corresponde al Ayuntamiento de Oiartzun.</p>
<p><i>4. artikulua. Pertsona edo erakunde erabiltzaileak.</i></p> <p>Zerbitzu hauetako prestazioetan erabiltzaile dira zerbitzu hauen onuradun edo eraginpeko diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, baldin eta Oiartzungo etxeetan, saltokietan eta zerbitzuetan hondakinak eta zerbitzuetan eta industrian etxe-hondakinak sortzen badituzte.</p>	<p><i>Artículo 4. Personas o entidades usuarias.</i></p> <p>Tienen la categoría de personas o entidades usuarias a los efectos de la prestación de estos servicios, todas las personas físicas y jurídicas que generan residuos en los hogares, comercios, servicios y los domésticos generados en servicios e industria en el municipio de Oiartzun y resultan beneficiadas o afectadas por dichos servicios.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p><i>5. artikulua. Araudi aplikagarria.</i></p> <p>Ordenantza hau Ekonomia Zirkular baterako Hondakin eta Lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek arautzen dute.</p>	<p><i>Artículo 5. Normativa aplicable.</i></p> <p>La presente ordenanza se rige por lo dispuesto en la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular y demás disposiciones de aplicación.</p>
<p>Horiek horrela, ordenantza honek arautzen ez dituen gainerako hondakinei dagokienez, sortzaileak edo edukitzaileak gorago aipaturiko 7/2022 Legeak xedatutakoarekin bat kudeatu beharko ditu.</p>	<p>En este sentido, respecto al resto de residuos no regulados por esta ordenanza, el/la productor/a o poseedor/a deberá gestionarlos de acuerdo con lo dispuesto en la citada Ley 7/2022.</p>
<p><i>6. artikulua. Hondakinen definizioa.</i></p> <p>Ordenantza honen ondorioetarako honako hau hartuko da:</p>	<p><i>Artículo 6. Definición de residuo.</i></p> <p>A los efectos de la presente ordenanza se entiende por:</p>
<p>-“Hondakin” gisa: Ekonomia Zirkular baterako Hondakin eta Lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeko 2. artikuluan zehaztutako edozein sustantzia edo gauza, baldin eta horren edukitzaileak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu.</p>	<p>- Por “residuo”: cualquier sustancia u objeto especificado en el artículo 2 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular, cuyo/a poseedor/a arroje o tenga intención u obligación de desechar.</p>
<p>-“Etxe-hondakin” gisa: 7/2022 Legeko 2. artikuluan arabera, etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak edo ez-arriskutsuak.</p>	<p>- Como “residuos domésticos”: según el artículo 2 de la Ley 7/2022, los residuos peligrosos o no peligrosos generados en el hogar por actividades domésticas.</p>
<p>Etxeko hondakintzat hartuko dira, halaber, zerbitzu eta industrietan sortutako antzekoak, osaeran eta kantitatean, zerbitzuaren edo industriaren beraren jardueraren ondorioz sortzen ez direnak.</p>	<p>Se consideran también residuos domésticos los similares en composición y cantidad a los anteriores generados en servicios e industrias, que no se generen como consecuencia de la actividad propia del servicio o industria.</p>
<p>Kategoria honetan sartzen dira, baita ere, etxeetan sortzen diren hondakinak, hala nola, sukaldeko olio erabiliak, tresna elektriko eta elektronikoak, ehunak, pilak, metagailuak, altzariak, tresnak eta koltxoak, bai eta eraikuntzako eta etxeko konponketako obra txikiak hondakinak eta obra-hondakinak ere.</p>	<p>Se incluyen también en esta categoría los residuos que se generan en los hogares de, entre otros, aceites de cocina usados, aparatos eléctricos y electrónicos, textil, pilas, acumuladores, muebles, enseres y colchones, así como los residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.</p>
<p>Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publikoak, berdeguneak, jolasguneak eta hondartzak garbitzetik sortutako hondakinak, hildako etxe-abereak eta kalean utzitako ibilgailuak.</p>	<p>Tendrán la consideración de residuos domésticos, los residuos procedentes de la limpieza de vías públicas, zonas verdes, áreas recreativas y playas, los animales domésticos muertos y los vehículos abandonados.</p>
<p>- “Udal-hondakin” gisa:</p>	<p>- Por “residuo municipal”:</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>1.- Etxeko jatorria dutenak, barne direla papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, biohondakinak, zura, ehunak, ontziak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoak eta altzariak barne;</p>	<p>1.- Los de origen doméstico, incluidos papel y cartón, vidrio, metales, plásticos, biorresiduo, madera, textiles, envases, residuos de aparatos eléctricos y electrónicos, residuos de pilas y acumuladores, residuos peligrosos del hogar y residuos voluminosos, incluidos los colchones y los muebles;</p>
<p>2.- Beste iturri batzuetatik datozenak, baldin eta hondakin horiek, izaeraz eta osaeraz, etxeko hondakinen antzekoak badira.</p>	<p>2.- Los procedentes de otras fuentes, cuando esos residuos sean similares en naturaleza y composición a los residuos de origen doméstico.</p>
<p>Udal-hondakinek ez dituzte barne hartzen ekoizpenetik, nekazaritzatik, basogintzatik, arrantzatik, hobi septikoetatik eta estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik sortutako hondakinak, araztegiko lohiak, balio-bizitzaren amaierako ibilgailuak eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak barne.</p>	<p>Los residuos municipales no comprenden los residuos procedentes de la producción, la agricultura, la silvicultura, la pesca, las fosas sépticas y la red de alcantarillado y plantas de tratamiento de aguas residuales, incluidos los lodos de depuradora, los vehículos al final de su vida útil ni los residuos de construcción y demolición.</p>
<p>-“Konpost” gisa: material organiko higienizatua eta egonkortua, bereizita bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofilatik lortua.</p>	<p>- Como “compost”: material orgánico higienizado y estabilizado obtenido a partir del tratamiento controlado biológico aerobio y termófilo de residuos biodegradables recogidos separadamente.</p>
<p>Material bioegonkortua ez da konpostzat hartuko.</p>	<p>No se considerará compost el material bioestabilizado.</p>
<p>-“Biohondakin” gisa: 7/2022 Legeko 2. artikulua arabera, etxeetako, lorategietako, parkeetako eta zerbitzuen sektoreko landare-hondakin biodegradagarria, baita etxeetako, bulegoetako, jatetxeetako, handizkako enpresetako, jantokietako, jatetxe kolektiboetako eta txikizkako kontsumo-establezimenduetako elikagai- eta sukaldaritzahondakinak ere, besteak beste, eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetatik sortutako hondakin alderagarriak.</p>	<p>- Por “biorresiduo”: según el artículo 2 de la Ley 7/2022, residuo biodegradable vegetal de hogares, jardines, parques y del sector servicios, así como residuos alimentarios y de cocina procedentes de hogares, oficinas, restaurantes, mayoristas, comedores, servicios de restauración colectiva y establecimientos de consumo al por menor, entre otros, y residuos comparables procedentes de plantas de transformación de alimentos.</p>
<p>- “Birziklatu” gisa, hondakinen materialak produktu, material edo substantzia bihurtzeko erabiltzen den balorizazio-eragiketa oro, jatorrizko helburuarekin zein beste edozein helbururekin. Material organikoa eraldatzea barne hartzen du, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregai gisa edo betelanetarako material gisa erabiliko diren material bihurtzeko prozesuak.</p>	<p>- Por “reciclado”, toda operación de valorización mediante la cual los materiales de residuos son transformados de nuevo en productos, materiales o sustancias, tanto si es con la finalidad original como con cualquier otra finalidad. Incluye la transformación del material orgánico, pero no la valorización energética ni la transformación en materiales que se vayan a usar como combustibles o para operaciones de relleno.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

- “Bilketa” gisa, hasieran hondakinak modu profesionalean pilatzea, sailkatzea eta biltegitratzea, ondoren tratamendu-instalazio batera garraiatzeko.	- Por “recogida”, operación consistente en el acopio, la clasificación y almacenamiento iniciales de residuos, de manera profesional, con el objeto de transportarlos posteriormente a una instalación de tratamiento.
- “Bilketa bereizi” gisa, hondakin-fluxu bat bereizita biltzea, motaren eta izaeraren arabera, tratamendu espezifiko bat errazteko.	- Por “recogida separada”, la recogida en la que un flujo de residuos por separado, según su tipo y naturaleza, para facilitar un tratamiento específico.
- “Udal-hondakinen errefus gisa”, udal-hondakinen tratamendu hauen ondoriozkoak (7/2022 Legearen 87. art. eta 626/2020 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren 1) atalaren d), e) eta g) atalak):	- Como “rechazos de residuos municipales” los residuos resultantes de los siguientes tratamientos de residuos municipales (art. 87 Ley 7/2022 y apartados d), e) y g) del apartado 1) del anexo IV del Real Decreto 626/2020):
1. Udal-hondakinak berrerabiltzeko prestatzean sortutako kontrol-, garbiketa- eta konponketa-eragiketak, ondoren zabortegietan uzteko.	1 Operaciones de control, limpieza y reparación producidos en la preparación de los residuos municipales para su reutilización y que posteriormente sean depositados en vertederos.
2. Udal-hondakinak birziklatu edo beste balorizazio bat egin aurreko tratamenduak, hala nola sailkapena edo tratamendu mekaniko-biologikoa, zabortegira eramaten direnean.	2. Tratamientos previos al reciclaje u otra valorización de residuos municipales tales como la clasificación o el tratamiento mecánico-biológico cuando sean destinados a depósito en vertedero.
3. Hondakinen tratamendu aerobio edo anaerobioan zehar edo ondoren materialak mekanikoki ezabatzea, gero hondakindegian uzteko.	3. Eliminación mecánica de materiales durante o después del tratamiento aerobio o anaerobio de los residuos y que posteriormente sean depositados en vertedero.
4. Udal-hondakinen atal biodegradagarria egonkortzea, hondakin horiek zabortegian uzteko direnean.	4. Estabilización de la fracción biodegradable de residuos municipales cuando estos sean destinados a depósito en vertedero.
Udal hondakinetatik eratorritako erregai solido berreskuratutakoak eta erregaiak errefustzat hartzen dira.	Tienen la consideración de rechazos los combustibles sólidos recuperados y combustibles derivados de residuos municipales.
- «Merkataritzako hondakinak»: handizkako zein txikizkako merkataritza-jardueretan sortutakoak dira, jatetxe eta taberna zerbitzuetan, bulego eta azoketan eta zerbitzuen sektoreko gainerako jardueretan eragindakoak.	- «Residuos comerciales»: residuos generados por la actividad propia del comercio, al por mayor y al por menor, de los servicios de restauración y bares, de las oficinas y de los mercados, así como del resto del sector servicios.
- «Industria-hondakinak»: industria-jarduerak bere jardura nagusiaren ondorioz sortutako	- «Residuos industriales»: residuos resultantes de los procesos de producción, fabricación,



OIARTZUNGO
UDALA

<p>ekoizpen-, fabrikazio-, eraldaketa-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze-prozesuetako hondakinak.</p>	<p>transformación, utilización, consumo, limpieza o mantenimiento generados por la actividad industrial como consecuencia de su actividad principal.</p>
<p>- «Hondakin arriskutsua»: 7/2022 legeko I. eranskinean zerrendatutako arrisku-ezaugarrietako bat edo batzuk dituen hondakina, eta Gobernuak hondakin arriskutsu gisa kalifikatzen duena, Europar Batasuneko araudian edo Espainia parte den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera. Definizio honetan sartzen dira, halaber, substantzia edo prestakin arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiekin kutsatuta dauden bilgarriak, salbu eta frogatzen bada ez dutela I. eranskinean zerrendatutako arrisku-ezaugarriak.</p>	<p>- «Residuo peligroso»: residuo que presenta una o varias de las características de peligrosidad enumeradas en el anexo I de la Ley 7/2022 y aquél que sea calificado como residuo peligroso por el Gobierno de conformidad con lo establecido en la normativa de la Unión Europea o en los convenios internacionales de los que España sea parte. También se comprenden en esta definición los recipientes y envases que contengan restos de sustancias o preparados peligrosos o estén contaminados por ellos, a no ser que se demuestre que no presentan ninguna de las características de peligrosidad enumeradas en el anexo I.</p>
<p>- «Hondakinen edukitzailea»: hondakinen ekoizlea edo hondakinak dauzkan pertsona fisiko edo juridikoa. Hondakinen edukitzailetzat hartuko da hondakin abandonatuak edo zabor solteak dauden lurzatiaren titular katastrala, eta hura izango da hondakinen erantzukizun administratiboa duena, materiala han zeinek utzi duen edo aurreko edukitzailea zein zen identifikatzea posible den kasuetan izan ezik.</p>	<p>- «Poseedor/a de residuos»: el productor o la productora de residuos u otra persona física o jurídica que esté en posesión de residuos. Se considerará poseedor/a de residuos al o a la titular catastral de la parcela en la que se localicen residuos abandonados o basura dispersa, siendo responsable administrativo/a de dichos residuos, salvo en aquellos casos en los que sea posible identificar al autor o a la autora material del abandono o poseedor anterior.</p>
<p>- «Hondakin-ekoizlea»: hondakinak ekoizten dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko ("hondakinen hasierako ekoizlea") edota alde zurretik tratamenduren bat, nahasketa edo bestelakoren bat egin eta hondakinen osieran edo berezkotasunean aldatetaren bat eragiten duen pertsona oro. Mugako instalazioetan kontrol- eta ikuskapen-zerbitzuek erretiratutako salgaien kasuan, hondakinen ekoizletzat joko da salgaiaren titularra edo salgaiaren inportatzaile edo esportatzailea, aduanetako legerian ezarritako eran. Epaile batek agindutako konfiskatze-ekintzetan agintaritzak polizialek erretiratutako salgaien kasuan, salgaiaren titularra joko da hondakinaren ekoizletzat.</p>	<p>- «Productor/a de residuos»: cualquier persona física o jurídica cuya actividad produzca residuos (productor inicial de residuos) o cualquier persona que efectúe operaciones de tratamiento previo, de mezcla o de otro tipo que ocasionen un cambio de naturaleza o de composición de esos residuos. En el caso de las mercancías retiradas por los servicios de control e inspección en las instalaciones fronterizas, se considerará productor/a de residuos al o a la titular de la mercancía o bien al/a importador/a o exportador/a de la misma según se define en la legislación aduanera. En el caso de las mercancías retiradas por las autoridades policiales en actos de decomisos o incautaciones efectuadas bajo mandato judicial, se considerará productor/a de residuos al/a la titular de la mercancía.</p>
<p>Gainerako definizioetarako, 7/2022 Legean eta</p>	<p>Para el resto de definiciones se estará a lo</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>hura garatzen duen araudian xedatutakoari jarraituko zaio.</p>	<p>dispuesto en la Ley 7/2022 y normativa que la desarrolle.</p>
<p><i>7. artikulua. Hondakinak kalean uztea.</i></p> <p>1. Debe katuta dago hondakinak kalean uztea. Era berean, kudeaketa zailtzen duten nahasketak edo disoluzioak egitea debe katzen da. Pertsona edo erakunde erabiltzaileak ordenantza honek araututako hondakinak ordenantzak berak zehaztutako ordutegietan eta baldintzetan Oiartzungo udalari entregatu beharko dizkio.</p>	<p><i>Artículo 7. Abandono de los residuos.</i></p> <p>1. Queda prohibido abandonar residuos. Del mismo modo, queda prohibido realizar mezclas o disoluciones que dificulten su gestión. La persona o entidad usuaria queda obligada a entregar los residuos regulados por esta ordenanza al Ayuntamiento de Oiartzun en los horarios y condiciones definidos por ésta.</p>
<p>2. Pertsona edo erakunde arau-hausleak hondakinak ezabatu eta kaltetutako gunea garbitu beharko du, jar daitezkeen zigorrak alde batera utzi gabe.</p>	<p>2. La persona o entidad infractora deberá eliminar los residuos y limpiar la zona afectada, sin perjuicio de las posibles sanciones que se puedan imponer.</p>
<p><i>8. artikulua. Hondakinak manipulatztea.</i></p> <p>Debe katuta dago hondakinak manipulatztea edo edukiontziz aldatzea, bilketa-zerbitzuak baimendutako edo Oiartzungo Udalak horretarako berariaz baimendutako langileak ez badira.</p>	<p><i>Artículo 8. Manipulación de los residuos.</i></p> <p>Queda prohibido manipular o trasvasar de recipiente los residuos, a excepción del personal propiamente autorizados por el servicio de recogida o expresamente autorizados a tal efecto por el Ayuntamiento de Oiartzun.</p>
<p>Udalak aldizkako karakterizazioen bidezko kontrol-mekanismoak ezarri ahal izango ditu, bilketa bereiziko fluxu bakoitzean ezegokiak murrizteko helburuarekin.</p>	<p>El Ayuntamiento podrá establecer mecanismos de control mediante caracterizaciones periódicas con el objetivo de reducción de impropios en cada flujo de recogida separada.</p>
<p><i>9 artikulua. Hondakinen bilketa egiteko baimenak.</i></p> <p>Ordenantza honetan araututako hondakinak biltzeko aginpidea bakarrik Oiartzungo udal-zerbitzuari edo -zerbitzuei dagokie.</p>	<p><i>Artículo 9. Autorizaciones para la realización de la recogida de residuos.</i></p> <p>La competencia para recoger los residuos regulados en esta ordenanza pertenece únicamente al servicio o los servicios del Ayuntamiento de Oiartzun.</p>
<p>Ondorioz, debe katutako dago beste pertsona fisiko edo juridiko batek bilketa-lanak egitea.</p>	<p>Consecuentemente, queda prohibido que otra persona física o jurídica realice las labores de recogida.</p>
<p>Udalak zerbitzu publiko deklaratu ahal izango ditu hondakin jakin batzuk kudeatzeko eragiketa guztiak edo batzuk, hondakinak modu jarraituan behar bezala kudeatzen ez direla frogatzen bada eta horrek giza osasunerako eta ingurumenerako arrisku nabarmena ekar badezake.</p>	<p>El Ayuntamiento podrá declarar servicio público todas o algunas de las operaciones de gestión de determinados residuos cuando se demuestre una incorrecta gestión de los residuos de manera continuada, y de ello se pueda derivar un riesgo significativo para la salud humana y el medio ambiente.</p>
<p>II. TITULUA</p>	<p>TÍTULO II</p>



OIARTZUNGO
UDALA

BILKETA BEREIZIAREN ZERBITZUA	SERVICIO DE RECOGIDA SEPARADA
I. KAPITULUA. ETXEZ ETXEKO BILKETA	CAPÍTULO I. RECOGIDA DOMICILIARIA
<p><i>10 artikulua. Etxez etxe biltzen diren hondakinak.</i></p> <p>Ordenantza honen ondorioetarako, etxez etxe hondakin bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:</p>	<p><i>Artículo 10. Residuos objeto de la recogida domiciliaria.</i></p> <p>A los efectos de la presente ordenanza, tendrá la consideración de recogida domiciliaria de residuos, la de los siguientes residuos:</p>
<p>A. Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detrituak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, bilgarriak, kartoiak, oinetako edo jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan edo parekotan sortutako hondakinak, aurrez Udalak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.</p>	<p>A. Los detritus y desperdicios de la alimentación y consumo doméstico, residuos de cristal o vajilla, envases, embalajes, cartones, desperdicios de vestido y calzado y en general todo residuo producido normalmente en un domicilio o asimilado y presentado para su recogida en el día, la hora, la forma y el lugar fijado, por el Ayuntamiento.</p>
<p>B. A atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendatan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.</p>	<p>B. Los de análoga naturaleza a los descritos en el apartado A, producidos en actividades comerciales, industriales y servicios, presentados y acondicionados en la misma forma indicada en el apartado citado.</p>
<p>C. A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas gunek, plaza, kale eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.</p>	<p>C. Los mismos del apartado A, procedentes de comedores, escuelas, edificios públicos, de culto, recreativos, plazas, calles, etc., presentados y acondicionados de la misma forma que indica el apartado citado.</p>
<p>D. Merkatuen, azoken, jai-leku publikoen, eta abarren garbiketetatik sortutako detrituak eta garbiketaproduktuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.</p>	<p>D. Los detritus y productos de limpieza de mercados, ferias, lugares de fiestas públicas, etc., presentados y acondicionados según se indica en el punto A.</p>
<p><i>11. Artikulua. Jatorrian bereizteko betebeharrak</i></p> <p>1. Hasierako sortzaileak edo hondakin komertzial ez-arriskutsuak dituen beste batek jatorrian bereizi eta kudeatu beharko ditu hondakinak, Ekonomia Zirkular baterako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 25. artikuluan eta ordenantza honetan ezarritako betebeharren arabera, eta toki-erakundearen aurrean kudeaketa egokia egin dela egiaztatzen beharko du agiri bidez; bestela, horiek kudeatzeko sistema publikoari atxiki ahal izango zaio,</p>	<p><i>Artículo 11. Obligación de separar en origen</i></p> <p>1. El/La productor/a inicial u otro/a que contenga residuos comerciales no peligrosos deberá separar y gestionar los residuos en origen, de acuerdo con las obligaciones establecidas en el artículo 25 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular y en esta ordenanza, debiendo acreditar documentalmente ante la entidad local la adecuada gestión, o adherirse al sistema público de gestión de los mismos en los</p>



ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.	términos establecidos en esta ordenanza.
<p>2. Sortzaileak edo beste edukitzaile batek hondakin komertzial ez-arriskutsuak kudeatzeko betebeharrak betetzen ez baditu, toki-erakundeak bere gain hartuko du kudeaketa, subsidiarioki, eta horren benetako kostua jasanarazi ahal izango dio kudeaketa egitera behartuta dagoen pertsonari edo erakundeari. Hori guztia, pertsona edo erakunde obligaziodunak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.</p>	<p>2. En caso de incumplimiento de las obligaciones de gestión de residuos comerciales no peligrosos por parte del/a productor/a u otro/a poseedor/a, la entidad local asumirá subsidiariamente la gestión, pudiendo repercutir el coste efectivo de la misma a la persona o entidad obligada a su gestión. Todo ello, sin perjuicio de las responsabilidades en que pueda incurrir la persona o entidad obligada.</p>
<p><i>12. artikulua. Etxez etxeko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.</i></p> <p>Kanpoan geratzen dira eta, hortaz, etxez etxeko bilketan ez dira hartuko honako hondakin hauek:</p>	<p><i>Artículo 12. Residuos excluidos del servicio de recogida domiciliaria.</i></p> <p>Quedan excluidos y, por tanto, no se recogerán los siguientes residuos:</p>
<p>— Hondeaketa-produktuak, harriak, hareak, lurrak, eraikin-hondakinak, industrietako errautsak, eta lan publikoetako nahiz pribatuetako hondakinak.</p>	<p>— Productos de excavación, piedras, arenas, tierras, escombros de edificios, cenizas industriales y residuos de obras públicas y privadas.</p>
<p>— Edozein pneumatiko mota, gurpil-azalak, industria prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.</p>	<p>— Neumáticos de cualquier tipo, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, barnices, pinturas, colas, líquidos corrosivos, grasas y aceites.</p>
<p>— Bidoiak, lata handiak, zumitzak eta txirbilak.</p>	<p>— Bidones, latas grandes, flejes y virutas.</p>
<p>— Inausketa eta lorazaintzako hondakinak.</p>	<p>— Residuos procedentes de podas y labores de jardinería.</p>
<p>— Abeltzantzako animalien hondakinak: artilea, simaurra, pentsua, etab.</p>	<p>— Residuos de animales ganaderos: lana, estiércol, pienso, etc.</p>
<p>— Etxe-abere hilak. Horien kudeaketarako, berariazko araudia bete behar da.</p>	<p>— Animales domésticos muertos, para cuya gestión se remite a su normativa específica.</p>
<p>— Kalean utzitako ibilgailuak. Horien kudeaketarako, berariazko araudiari bete behar da.</p>	<p>— Vehículos abandonados, para cuya gestión se remite a su normativa específica.</p>
<p>— Altzarien eta tamaina handiko tresnen bilketan: bakartutzat jo ezin diren etxeetan altzariak aldatzean sortzen diren altzariak eta elementuak, etxeak altzariz hornitzean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak barne.</p>	<p>— En recogidas de muebles y enseres de gran tamaño: muebles y elementos procedentes de cambio de mobiliario en viviendas que no pueden considerarse como aislados, incluidos los envoltorios procedentes del amueblamiento de viviendas o traslado de domicilio.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>— Era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten, herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola zaborra, egurra, hormigoia, leiho edo ate-markoak, zokaloak, pertsianak, oholtza, zoruak, moketak, bainuontziak, komun-ontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta oro har obretan sortzen direnak.</p>	<p>— Residuos generados en obras y reformas de todo tipo realizadas por la ciudadanía, gremios o diversos responsables, tales como escombros, maderas, marcos de puertas y ventanas, zócalos, persianas, tarimas, suelos, moquetas, bañeras, inodoros, lavabos, muebles de cocina, radiadores y similares y, en general, cualquier residuo de obra.</p>
<p>— Udalak zehaztu gabe dauden beste udal-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako udal-zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.</p>	<p>— Otros residuos no especificados expresamente por el Ayuntamiento, que, por su naturaleza o características especiales, no puedan ser atendidos por el servicio municipal de recogida de residuos.</p>
<p><i>13. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua.</i></p> <p>Udala derrigortuta dago etxez etxeko hondakinen bilketa egitera eta, hortaz, 10. artikuluan adierazitako eta udalak derrigorrez jaso behar dituen materialak biltzeko ardura hartuko du.</p>	<p><i>Artículo 13. Servicio obligatorio.</i></p> <p>El Ayuntamiento está obligado a hacerse cargo de la recogida de residuos domiciliarios y se hará cargo de retirar los materiales especificados como de recepción obligatoria por parte del municipio, siendo éstos los señalados en el artículo 10.</p>
<p><i>14. artikulua. Prestazioak.</i></p> <p>Zerbitzu horren egin beharrak honako hauek dira:</p>	<p><i>Artículo 14. Prestaciones.</i></p> <p>La prestación de este servicio comprende las siguientes operaciones:</p>
<p>— Hondakinak uzteko modu eta tokietatik bilketa-ibilgailuetara eraman eta hustu.</p>	<p>— Traslado de los residuos desde los lugares y formas indicados y vaciado de los mismos en los vehículos de recogida.</p>
<p>— Hustu ondoren, edukiontziak, bere lekuetara itzuli.</p>	<p>— Devolución de los elementos de contención, una vez vaciados a los puntos originarios.</p>
<p>— Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.</p>	<p>— Retirada de restos de residuos caídos en la vía pública como consecuencia de estas operaciones.</p>
<p>— Hondakinak, zehaztuak dauden tratamenduguneetara edo transferentzia-zentroetara eraman eta haietan hustu, bertan tratatu ditzaten.</p>	<p>— Transporte y descarga de los residuos en las correspondientes plantas de tratamiento o en las estaciones de transferencia que corresponda, para su posterior tratamiento.</p>
<p>— Bilketako ibilgailu eta tresneria aldian-aldian garbitu eta egoera onean edukitzea eta mantentzea.</p>	<p>— Limpieza periódica y mantenimiento en buen estado de los vehículos y materiales de trabajo.</p>
<p><i>15. artikulua. Hondakinen jabegoa.</i></p>	<p><i>Artículo 15. Responsable de los residuos.</i></p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>1. Udal hondakinen sortzaileek edo edukitzaileek ordenantza honetan jasotzen diren baldintzetan utzi beharko dituzte haiek Oiartzungo Udalaren esku; hark, hondakinen jabetza har dezan, une horretatik bertatik.</p>	<p>1. Los/as productores/as o poseedores/as de residuos municipales, deberán ponerlos en las condiciones que se determinan en esta ordenanza, a disposición de la entidad gestora, Ayuntamiento de Oiartzun, quien adquirirá la propiedad de los mismos desde la entrega y recogida.</p>
<p>2. Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan ordenantza honek dioena eta gainerako lege-arauak bete badituzte.</p>	<p>2. Dichas personas quedarán exentas de responsabilidad por los daños que puedan causar tales desechos o residuos, siempre que en su entrega se haya observado la presente ordenanza y demás normas legales.</p>
<p><i>16. artikulua. Zerbitzua ematea.</i></p> <p>Udal-hondakinen atez ateko bilketa gaueko 22:00etan hasiko da, astelehenetik igandera. Asteke egun bakoitzean ondorengo hondakin-atal bakoitza bilduko da:</p>	<p><i>Artículo 16. Prestación del servicio.</i></p> <p>La recogida puerta a puerta de los residuos municipales comenzará a las 22:00 de la noche, de lunes a domingo. Cada día de la semana se recogerán los siguientes residuos:</p>
<ul style="list-style-type: none">- Ontzi arinak: astelehen eta ostegunetan.- Papera eta kartoia: asteartetan.- Organikoa: asteazken, ostiral eta igandetan.- Errefusa: larunbatetan.	<ul style="list-style-type: none">- Envases ligeros: lunes y jueves.- Papel y cartón: los martes.- Orgánico: miércoles, viernes y domingos.- Rechazo: sábados.
<p>Udalerriaren interesak kontuan hartuta, Udalak bilketaren maiztasunean aldaketak egitea erabaki ahal izango du, alkatetza-dekretu bidez.</p>	<p>Considerando los intereses del municipio, el Ayuntamiento podrá acordar, mediante decreto de alcaldía, cambios en la periodicidad de la recogida.</p>
<p>Atez ate bildu behar diren hondakinak gaueko 20:00etatik 22:00etara bitartean atera beharko dira. Hondakinen edukiontzia hurrengo eguneko bilketa baino lehen jasota egon beharko dira.</p>	<p>Los residuos que deban ser recogidos puerta a puerta deberán sacarse entre las 20:00 y las 22:00 horas de la noche. Los recipientes de residuos deberán estar recogidos antes de la recogida del día siguiente.</p>
<p><i>17. artikulua. Programazioa.</i></p> <p>Udal-zerbitzuek jakitera emango dute bilketa zerbitzuaren programazioa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzen jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Udalak, aldeztu aurretik ordutegiaren, bilketa-eraren edo maiztasunaren aldaketen berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu Udaleko alkateak. Zehaztapenak alkatetza-bandoaren bidez erregulatuko dira.</p>	<p><i>Artículo 17. Programación.</i></p> <p>Los servicios del Ayuntamiento harán pública la programación prevista de días, horarios y medios para la prestación de los servicios de recogida; y de acuerdo con las necesidades del servicio podrá introducir las modificaciones que, por motivos de interés público, tenga por conveniente, divulgándose con suficiente antelación, los cambios en el horario y la forma o frecuencia de prestación del servicio. La persona titular de la alcaldía-presidencia dictará las oportunas disposiciones en situaciones de emergencia, caso fortuito o fuerza mayor. Las especificaciones de detalle</p>



	se regularán mediante bando del alcalde.
<p><i>18. artikulua. Larrialdiak.</i></p> <p>Larrialdi egoerak ematen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak aldeztu aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak, zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Udalak bidezko aginduak eman bitartean.</p>	<p><i>Artículo 18. Casos de emergencia.</i></p> <p>En aquellos casos considerados como emergencia, tales como conflictos sociales, inundaciones u otras situaciones de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio, y previa comunicación municipal, los/as vecinos/as se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio, o hasta que el Ayuntamiento dicte las instrucciones oportunas.</p>
<p><i>19. artikulua. Udal-hondakinak biltzeko gune edo puntuak.</i></p> <p>Udal zerbitzuek erabakiko dute zonalde bakoitzean erabili beharreko biltzeko guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak.</p>	<p><i>Artículo 19. Puntos o zonas de recogida de los residuos municipales.</i></p> <p>El tipo y número de puntos de recogida necesarios para depositar cada residuo y su ubicación será fijado por los servicios del Ayuntamiento.</p>
<p>a) Udalak udalerraren zerbitzurako euskarriak, seinaleak eta beste edozein elementu ezarri, kendu edo alda ditzake, bere kargura, egoitza-erabilerako eta pareko erabilerako edo jarduera ekonomikoetako partzelatan eta jabeak onartzera behartuta egongo dira.</p>	<p>a) El Ayuntamiento podrá instalar, suprimir o modificar, a su cargo, en las parcelas de uso residencial o asimilado, o de actividades económicas, y los/as propietarios/as vendrán obligados/as a consentirlo, soportes, señales y cualquier otro elemento al servicio del municipio.</p>
<p>b) Eraikuntza berriek Eraikingintzaren Kode Teknikoak 13.2. artikuluan finkatutako baldintzak bete beharko dituzte (egoitza erabilerarako biltzeko-guneen baldintzak zehazten dira, beste erabileretako eraikuntzetan biltzeko-guneen azterketa bat egin beharko da).</p>	<p>b) Las nuevas edificaciones deberán cumplir los requisitos establecidos en el art. 13.2 del Código Técnico de la Edificación (en el mismo se recogen los requisitos de los puntos de recogida de las edificaciones con uso residencial; en las edificaciones con distinto uso se deberá realizar un examen de los puntos de recogida).</p>
<p><i>20. artikulua. Hondakinen gela.</i></p> <p>1. Egiten diren eraikin berri guztiek – isolatutako familia bakarreko etxebizitzak, atxikiak eta bi etxe bizitzetarako direnek izan ezik– gune bat gorde beharko dute.</p> <p>2. Hondakinen gelak kontutan hartuko dira eraikigarritasuna kalkulatzeko.</p> <p>3. Lokal horiek aireztapen natural edo artifizial independentea izango dute; indarrean dagoen araudia beteko dute eta gainera honako baldintzak bete beharko dituzte:</p>	<p><i>Artículo 20. Cuarto de residuos.</i></p> <p>1. Todas las nuevas edificaciones que se construyan – con excepción de las destinadas a vivienda unifamiliar aislada, adosada y bifamiliar –, deberán reservar un espacio.</p> <p>2. Los cuartos de residuos computarán a efectos de edificabilidad.</p> <p>2. Estos locales, que dispondrán de ventilación natural o artificial independiente, cumplirán la normativa vigente y deberán cumplir las siguientes condiciones:</p>



OIARTZUNGO
UDALA

ETXEBIZITZAK:	VIVIENDAS:
<ul style="list-style-type: none">- 1,2 metrotik gorako zabalera areak.- Zoru iragazgaitzak eta garbigarriak, gutxienez 2m-ko altueran azulejuz edo morteroz luzituak.- Argi-puntuak, etengailuekin eta larrialdiko argi puntuak.- Mahukez hornitutako txorrotak, lokal osoa erraz eta zuzenean garbitzeko.- Garbiketa-uretarako hustubide sifoiduna.- Giro-aireztapena.	<ul style="list-style-type: none">- Puertas de anchura superior a 1,2 metros.- Suelos impermeables y limpiables, pavimentos enlucidos con azulejo o mortero a una altura mínima de 2 m.- Puntos de luz con interruptores y puntos de luz de emergencia.- Grifos de mangueras para la limpieza directa y sencilla de todo el local.- Desagüe sifonado para aguas de lavado.- Ventilación ambiental.
Atal honetan azaltzen ez diren gainerakoetarako Eraikigintzaren Kode Teknikoa eta gainerako araudia hartuko dira kontutan.	Para el resto de las no contempladas en este apartado se tendrá en cuenta el Código Técnico de Edificación y demás normativa.
4. Hondakinen gela bertara erraz heltzeko modukoa izango da, eta kanpotik sarrera zuzena eta independentea izango du, eta ahal dela, beheko solairuan. Teknikoki zurituz gero, onartuko da erdisotoan egotea, betiere ibilgailuen sarbideetik gertu.	4. El cuarto de residuos tendrá fácil acceso a la misma, con acceso directo e independiente desde el exterior, y a ser posible en la planta baja. En caso de justificación técnica, se admitirá la presencia en semisótano, siempre cerca del acceso rodado.
5. Ez da baimenduko biltzaileak bertara heltzeko eraikin pribatuaren barrutik pasatu beharra egotea (esaterako, garajeak igaro beharra).	5. No se permitirá el acceso del recolector al interior del edificio privado (por ejemplo, la necesidad de pasar garajes).
6. Gelak azalera egokia izan beharko du Udalak zehaztutako biltzeta moduek jasotako azpiegitura eta kasuan kasuko edukiontziak jasotzeko.	6. El cuarto deberá disponer de una superficie adecuada para acoger la infraestructura y los recipientes correspondientes recogidos por las formas de recogida que determine el Ayuntamiento.
Nolanahi ere, eraikinean sortutako hondakinak biltegitzeko lokalaren azalera erabilgarria gutxienez 3 m ² -koa izango da.	En cualquier caso, la superficie útil del local para almacenamiento de los residuos generados en el edificio debe ser como mínimo de 3 m ² .
Lokalaren diseinuak eta banaketak aukera emango dute edukiontziak erabiltzeko, manipulatzeko eta lekualdatzeko, bai eta horiek garbitzeko lanak egiteko ere.	El diseño y distribución del local será tal que facilite el uso, manipulación y traslado de los recipientes, así como de las operaciones de lavado de los mismos.
Hala ere, gutxienezko azalera erabilgarria ondorengo formula erabiliz kalkulatu da:	No obstante, a los efectos del cálculo de la superficie útil mínima, esta podrá calcularse de acuerdo a la siguiente fórmula:
$A = P * 0,25.$	$A = P * 0,25.$



OIARTZUNGO
UDALA

<p>A azalera erabilgarria m²-tan. P etxebizitzako ohiko bizilagun kopurua. Zenbaki hau kalkulatzeko: $P = \text{gela bakunak} + (\text{gela bikoitzak} \times 2)$.</p>	<p>Superficie útil A en m². P= El número de vecinos/as habituales de la vivienda. Para calcular el número P = habitaciones simples + (habitaciones dobles x2)</p>
<p><i>21. artikulua. Garbiketa.</i></p> <p>1. Etxeetako nahiz saltokietako edukiontziak garbi eta txukun edukitzea titularraren ardura izango da.</p>	<p><i>Artículo 21. Limpieza.</i></p> <p>Mantener limpios y en condiciones los recipientes tanto domésticos como comerciales será responsabilidad de su titular.</p>
<p>2. Hondakinen gelak garbitzeko ardura bizilagunen komunitateak izango du.</p>	<p>2. La limpieza de los cuartos de residuos corresponderá a la comunidad de vecinos/as.</p>
<p><i>22. artikulua. Pertsona eta erakunde erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.</i></p> <p>1. Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria, osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile diren pertsona edo erakunde guztiek eta, oro har, zerbitzu honen eraginpeko erabiltzaile edo onuradun diren pertsona edo erakunde guztiek:</p>	<p><i>Artículo 22. Derechos, obligaciones y responsabilidad de las personas y entidades usuarias.</i></p> <p>1. Todas las personas o entidades propietarias o usuarias de viviendas, centros comerciales, almacenes, ferias, locales de espectáculos, colegios, industrias, establecimientos sanitarios y, en general, todas las personas o entidades usuarias o beneficiarias afectados por este servicio:</p>
<p>a) Udal bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute.</p>	<p>a) Tienen derecho a utilizar el servicio de recogida municipal.</p>
<p>b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere ordenantza honetan jasotzen dena.</p>	<p>b) Están obligadas al cumplimiento de la normativa aplicable en materia de residuos, en particular la recogida en la presente ordenanza.</p>
<p>c) Udalak eskatuta, hondakinak bota edo uzten dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.</p>	<p>c) Deben identificar, a petición del Ayuntamiento, a la persona que deposita o deja los residuos.</p>
<p>d) Ezaugarri bereziak dituztenean, garraiatzean, biltzean, balorizatzean edo ezabatzean arazoak eragin ditzaketen hondakinei buruzko informazioa eman behar diete toki-erakundeei.</p>	<p>d) Deben proporcionar a las entidades locales información sobre los residuos que les entreguen cuando presenten características especiales, que puedan producir trastornos en el transporte, recogida, valorización o eliminación.</p>
<p>e) Hondakinak bereizi eta horretarako ezarritako edukiontzien edo bilketa-puntuen barruan utzi behar dituzte.</p>	<p>e) Deben separar los residuos y depositarlos en el interior de los recipientes o puntos de recogida establecidos al efecto.</p>
<p>f) Hondakinen bolumena murriztea, konpaktatuz, edukiontzien edukiera ahalik eta gehien aprobetxatzeko.</p>	<p>f) Reducir el volumen de los residuos compactándolos de tal forma que se aproveche</p>



OIARTZUNGO
UDALA

	al máximo la capacidad de los recipientes.
g) Edukiontzia erabili ondoren, tapak edo atepak behar bezala itxi beharko dira.	g) Una vez utilizado el recipiente, las tapas o puertas deberán quedar correctamente cerradas.
h) Hondakinen biltegien eta entregen ordutegiak betetzea.	h) Cumplir con los horarios de los depósitos y entrega de residuos.
2. Udalak hondakin asimilagarrien bilketatik kanpo utz ditzake enpresak, hondakin horien osagaiengatik edo kopuruagatik oso zaila denean bilketa-lana egitea, eta enpresak berak bere hondakinak eta asimilagarriak kudeatu beharko ditu.	2. El Ayuntamiento podrá excluir a las empresas de la recogida de residuos asimilables cuando por sus componentes o cantidad resulte muy difícil realizar la recogida, debiendo la propia empresa gestionar sus residuos y asimilables.
Etxeo hondakinak eta hondakin komertzialak sortzen dituztenak toki-erakundeek ikuskatuko dituzte, kasuan kasuko ordenantzetan eta lege honetan eta lege hau garatzeko erregelamenduetan beren eskumenekoak diren gaietan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.	Los/as productores/as de residuos domésticos y comerciales estarán sujetos/as a las inspecciones por parte de las entidades locales, a los efectos de comprobar el cumplimiento de lo establecido en las respectivas ordenanzas y en esta ley y sus reglamentos de desarrollo en lo que sea de su competencia.
<i>23. artikulua. Erabilpen-arauak.</i>	<i>Artículo 23. Normas de uso.</i>
1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak hondakin-atal bakoitza ondo sailkatuta eta Udalak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi beharko ditu.	1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a entregar los residuos domiciliarios segregados en cada una de las fracciones siguiendo las indicaciones del Ayuntamiento.
2. Debekatuta dago hondakin likidoak zein urtzeko modukoak ateratzea.	2. Se prohíbe el depósito de residuos que contengan residuos líquidos o susceptibles de licuarse.
3. Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Pertsona edo erakunde erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.	3. Se prohíbe el abandono de residuos. Las personas o entidades usuarias están obligadas a depositarlos con arreglo a los horarios y en los lugares y forma señalados.
4. Debekatuta dago kaleko paperontzi edo hondakin-ontzietan etxeetan sortu diren hondakin poltsak uztea.	4. Queda prohibido dejar las bolsas de residuos domiciliarios en las papeleras públicas o en los contenedores de residuos.
5. Debekatuta dago bilketa-ontziak edo -lekuak funtzionalki edo estetikoki hondatu dezakeen edozein ekintza.	5. Queda prohibido cualquier actuación que deteriore el recipiente, el contenedor o las zonas de recogida, funcional o estéticamente
6. Debekatuta dago tamaina handiko hondakinak kalean uztea (altzariak, etxetresna elektrikoak...). Bakarrik utz daitezke baldin eta haiek jasotzeko zerbitzu berezia eskatu eta	6. Se prohíbe depositar en la calle residuos voluminosos (mobiliario, aparatos eléctricos domésticos...). Sólo podrán dejarse cuando se solicite el servicio especial para su recogida y



OIARTZUNGO
UDALA

<p>dagokion udal-bulegoak hura onartu badu. Kasu horietan, horretarako jarritako leku, egun eta orduan atera beharko dira hondakinak kalera.</p>	<p>así haya sido aprobado por la oficina municipal correspondiente. En estos casos, los residuos deberán sacarse a la calle en el lugar, día y hora habilitados al efecto.</p>
<p><i>24. artikulua. Biohondakinen gaikako bilketa.</i></p> <p>1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak behartuta daude biohondakina uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.</p>	<p><i>Artículo 24. Recogida selectiva de biorresiduos.</i></p> <p>1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a entregar el biorresiduo en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.</p>
<p>2. Biohondakin moduan utziko dira ordenantza honen I eranskineko 1. a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.</p>	<p>2. Se depositarán como biorresiduo solo los residuos especificados en el punto 1. a del Anexo I de esta ordenanza.</p>
<p>3. Ekonomia Zirkular baterako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen 12.5.c), 14 eta 15.3 artikuluetan aurreikusitako ahalmenak erabiliz, Oiartzungo Udalak, dagokion programaren bidez, elikagaien hondakinak murrizten laguntzeko neurriak ere ezarri ahal izango ditu, hala badagokio, elikagaiak prestatzeko eta banatzeko establezimenduekin lankidetzan, eta Estatuko eta autonomia-erkidegoko programetan ezarritakoa kontuan hartuta.</p>	<p>3. En ejercicio de las facultades previstas en el art. 12.5.c), 14 y 15.3 de la Ley 7/2022, de Residuos y suelos contaminados para la economía circular, el Ayuntamiento de Oiartzun, a través del correspondiente Programa, podrá establecer también medidas para favorecer la reducción de los residuos alimentarios, en su caso, en colaboración con los establecimientos de restauración y distribución de alimentos, y teniendo en cuenta lo establecido en los programas estatal y autonómico.</p>
<p>4. Udalak biohondakina poltsarik gabe uztea hobesten duen arren, baimenduko du EN 13432:2000 araua betetzen duten poltsa konpostagarrietan ateratzea. Udalak baimendutako poltsa konpostagarriek II eranskinean adierazten diren ezaugarrietako bat izan beharko dute.</p>	<p>4. Aunque el Ayuntamiento prefiere que se deposite el biorresiduo sin bolsas, permitirá sacarlo en bolsas compostables que cumplan la norma EN 13432:2000. Las bolsas compostables autorizadas por el Ayuntamiento deberán tener una de las características que se indican en el Anexo II.</p>
<p><i>25. artikulua. Autokonposta eta auzokonposta.</i></p> <p>1. Legeriak ezartzen duen hondakinen kudeaketarako hierarkiaren goreneko mailan prebentzioa dago. Era berean, legeriak gertutasun eta autogestioaren printzipioa ezartzen du. Bi alde horiek gauzatzeko asmoz, Oiartzungo Udalak udalerrian sortutako biohondakina herrian bertan konposta dadin neurriak hartuko ditu. Era berean, Oiartzungo Udalak, herrian sortutako konposta herrian bertan erabiltzeko neurriak hartuko ditu.</p>	<p><i>Artículo 25. Autocompost y compost comunitario.</i></p> <p>1. La prevención es el primer nivel en la jerarquía de la gestión de residuos establecido por la ley. Al mismo tiempo, la ley establece el principio de autosuficiencia y proximidad. Con el objeto de llevar a cabo ambos aspectos, el Ayuntamiento de Oiartzun adoptará las medidas necesarias para que el compostaje se lleve a cabo en el propio municipio del biorresiduo generado en la población. De igual modo, el Ayuntamiento de Oiartzun adoptará las medidas necesarias para el uso del compost generado en el propio municipio.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

2. Udalari ikuskaritza egiteko ahalmena eman beharko diote etxean konpostatu eta ordenantza fiskaletan zehaztutako hobaria jasotzen dutenek.	2. Quienes composten en su domicilio y perciban la bonificación contemplada en las ordenanzas fiscales deberán facultar al Ayuntamiento para realizar la inspección.
3. Auzokonpostatze-kanpainan parte hartu nahi dutenek auzokonpostatze-guneko giltza jaso eta konpostatzen hasteko Udalak emandako konpostaje-hastapeneko ikastaroa egin beharko dute.	3. Quienes deseen participar en la campaña de compostaje comunitario deberán recoger la llave de la zona de compostaje y realizar un curso de iniciación al compostaje impartido por el Ayuntamiento.
4. Auzokonpostatze-kanpainan parte hartzen duten herritarrek hondakin organikoa konpostagailura botatzean kontutan hartu beharko dituzte ikastaroan emandako jarraibideak.	4. La ciudadanía que participe en la campaña de compostaje comunitario deberá tener en cuenta las instrucciones dadas en el curso al depositar el residuo orgánico en la compostadora.
5. Auzokonpostatze-gunea eta konpostatzeko beharrezko tresneria Udalak jarriko ditu.	5. La zona de compostaje comunitario y los equipos necesarios para el compostaje serán aportados por el Ayuntamiento.
<i>26. artikulua. Paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa.</i> 1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak behartuta daude papera eta kartoiak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.	<i>Artículo 26. Recogida selectiva de papel y cartón.</i> 1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a entregar el papel y cartón en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.
2. Paper eta kartoi moduan utziko dira ordenantza honen I Eranskineko 2. a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.	2. Se depositarán como fracción papel y cartón solo los residuos especificados en el punto 2. a del anexo I de esta ordenanza.
<i>27. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.</i> 1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak behartuta daude ontzi arinak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.	<i>Artículo 27. Recogida selectiva de envases ligeros.</i> 1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a entregar los envases ligeros en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.
2. Ontzi arin moduan utziko dira ordenantza honen I. Eranskineko 3. a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.	2. Se depositarán como fracción envases ligeros solo los residuos especificados en el punto 3. a del Anexo I de esta ordenanza.
3. Ontzi hauek garbiak utziko dira.	3. Estos envases se depositarán limpios.
<i>28. artikulua. Beirazko ontzien gaikako bilketa.</i>	<i>Artículo 28. Recogida selectiva de envases de</i>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak behartuta daude beirazko ontziak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.</p>	<p><i>vidrio.</i></p> <p>1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a entregar los envases en la forma y los horarios que establezca el Ayuntamiento.</p>
<p>2. Beirazko ontziak bide publikoan horretarako dauden edukiontzietan utziko dira. Edukiontzi horietan bakarrik utzi ahal izango dira ordenantza honen I Eranskineko 4. a puntuan adierazten diren hondakinak.</p>	<p>2. Los envases de vidrio se depositarán en los contenedores ubicados para ello en la vía pública. Se depositarán como fracción vidrio solo los residuos especificados en el punto 4. a del Anexo I de esta ordenanza.</p>
<p><i>29. artikulua. Errefusaren gaikako bilketa.</i></p>	<p><i>Artículo 29. Recogida selectiva de rechazo.</i></p>
<p>1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak edo erakundeak behartuta daude errefusa uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.</p>	<p>1. Las personas o entidades usuarias del servicio están obligadas a depositar el rechazo en la forma y con el horario que señale el Ayuntamiento.</p>
<p>2. Errefusa moduan utziko dira ordenantza honen I Eranskineko 5. a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.</p>	<p>2. Sólo se depositarán como rechazo los residuos indicados en el punto 5.a del Anexo I de esta Ordenanza.</p>
<p>3. Pixoihal eta zapi higienikoak egunero atera ahal izango dira, betiere aparte, poltsa batean, egun horretan tokatzen den hondakin-atalarekin batera.</p>	<p>3. Los pañales y paños higiénicos podrán depositarse todos los días de la semana, siempre en bolsa aparte, a la vez que la fracción correspondiente del día.</p>
<p>4. Modu berean, egunero etxeko animalien gorotzak ere atera ahal izango dira, betiere aparte, poltsa batean, egun horretan tokatzen den hondakin-atalarekin batera. Errefusa uztea tokatzen den egunetan, guztia batera aterako da.</p>	<p>4. Asimismo los excrementos de mascotas podrán depositarse todos los días de la semana, siempre en bolsa aparte, a la vez que la fracción correspondiente del día. Los días de recogida de la fracción rechazo se entregarán junto con ésta.</p>
<p><i>30. artikulua. Saltokiak eta ostalaritza.</i></p> <p>Saltokietako zein ostalaritzako pertsona edo erakunde arduradunak behartuta egongo dira hondakinak aurreko artikuluetan adierazten den moduan kudeatzera; hau da, horiek ere hondakinak gaika atera beharko dituzte eta 24., 26., 27., 28. eta 29. artikuluetan adierazten den moduan kudeatu.</p>	<p><i>Artículo 30. Comercios y hostelería.</i></p> <p>Las personas o entidades responsables de comercios y hostelería estarán obligadas a gestionar sus residuos tal como se ha expresado en los anteriores artículos; es decir, estos también deberán sacar los residuos de forma selectiva y los gestionarán tal como se indica en los artículos 24., 26., 27., 28 y 29.</p>
<p>Merkatari eta ostalariak eguneroko jardueraren ondorioz sortutako porexpanezko babeskiak edo/eta plastikozko bilgarriak beren kudeatzaileekin kudeatu beharko dituzte, eta Udalak kudeaketa horren egiaztagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.</p>	<p>Los/as comerciantes y hosteleros/as deberán gestionar con sus propios gestores/as los protectores de porexpán y/o embalajes de plástico generados como consecuencia de la actividad diaria y el Ayuntamiento podrá solicitar la presentación de los justificantes de dicha gestión.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>Ostalariek eguneroko jardueraren ondorioz sortzen duten olio erabilia beren kudeatzaile gaituekin kudeatu beharko dute, eta Udalak kudeaketa horren egiaztagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.</p>	<p>Los/as hosteleros/as deberán gestionar el aceite usado generado como consecuencia de la actividad con gestores/as habilitados/as propios/as y el Ayuntamiento podrá solicitar la presentación de los justificantes de dicha gestión.</p>
<p><i>31. artikulua. Arrandegi eta harategietako hondakinak.</i></p> <p>Arrandegi eta harategi jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak giza kontsumorako ez diren animalia jatorriko azpi-produktuak dira. Udalaz gaindiko arautegiak erregulatzen du haien bilketa, zehazki, 1528/2012 Errege Dekretuak, azaroaren 8koak, giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei eta eratorritako produktuak aplikatu beharreko arauak ezartzen dituenak.</p>	<p><i>Artículo 31. Residuos propios de pescaderías y carnicerías.</i></p> <p>Los residuos generados como consecuencia de la actividad de pescaderías y carnicerías son aquellos subproductos de origen animal no aptos para el consumo humano. Su gestión está regulada por una normativa supramunicipal, concretamente por el Real Decreto 1528/2012, de 8 de noviembre, por el que se establecen las normas aplicables a los subproductos animales y los productos derivados no destinados al consumo humano.</p>
<p>Arrandegiek eta harategiek erabat debekatuta dute horrelako hondakinak udalerriko ontzietan edo edukiontzietan uztea, ez baitira udal-hondakintzat hartzen. Hori dela eta baimendutako kudeatzaileei eman behar zaizkie.</p>	<p>Las pescaderías y carnicerías tienen totalmente prohibido depositar este tipo de residuos en los recipientes o contenedores del municipio, ya que no se consideran residuos municipales. Deben entregarse a gestores/as autorizados/as.</p>
<p><i>32. artikulua. Porexpana.</i></p> <p>Merkatari eta ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten porexpanezko babeskiak edo/eta plastikozko bilgarriak beren kudeatzaileekin kudeatu beharko dituzte eta, Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.</p>	<p><i>Artículo 32. Porexpán.</i></p> <p>Los/as comerciantes y hosteleros/as gestionarán los embalajes de porexpán y/o envoltorios de plástico generados como consecuencia de la actividad a través de gestores/as propios/as, y presentarán en el Ayuntamiento los certificados correspondientes a dicha gestión cada vez que les sean requeridos.</p>
<p><i>33. artikulua. Sortzaile handiak.</i></p> <p>Zenbait jarduera ekonomikorako arazoak sor ditzakete hondakinen bilketa-zerbitzuan, batik bat hondakin horien bolumenagatik.</p>	<p><i>Artículo 33. Grandes productores/as.</i></p> <p>Ciertas actividades económicas pueden ocasionar distorsiones en el servicio de recogida de residuos, principalmente debido al volumen de éstos.</p>
<p>Horregatik, horrelako kasuetan, zerbitzua erabiltzen duen pertsonak edo erakundeak hondakin horiek utzi beharko ditu Udalak jarritako lekuetan, hondakinak isurtzeko arriskutik kanpo. Edukiontzi horiek homologatuak izango dira, eta horiek garbitzeaz eta mantentzeaz erabiltzailea arduratuko da.</p>	<p>Por lo tanto, en tales casos, la persona o entidad usuaria deberá depositar los residuos municipales en los lugares y formas que determine el Ayuntamiento, libres de todo riesgo de vertido. Dichos recipientes deberán ser homologados y corresponderá a la persona usuaria el mantenimiento y limpieza de los</p>



OIARTZUNGO
UDALA

	mismos.
Udalak hondakin bilketa-zerbitzutik kanpo utz ditzake enpresa handiak hondakinaren ezaugarriak edo hondakin kopuruak berak bilketa zerbitzua asko eragozten duenean.	El Ayuntamiento puede excluir a las grandes empresas del servicio de recogida de residuos asimilables cuando su composición o la cantidad de residuos dificulten extraordinariamente la recogida de los mismos.
<i>34. artikulua. Ekarpen-guneak.</i> Hondakinak atez ate bildu ezin daitekeen landalurrean kokaturik dauden baserri eta etxeetako hondakinak biltzeko ekarpen guneak eraiki dira udalerriko hainbat puntutan.	<i>Artículo 34. Áreas de aportación.</i> En diferentes puntos del municipio se han construido puntos de aportación para la recogida de residuos de caseríos y hogares situados en una zona rural que no puede ser recogidas puerta a puerta.
Ekarpen-gune horiek hondakin mota bakoitza uzteko zenbait edukiontziz hornitu dira, eta gune horiek erabiltzeko baimena dutenek, hondakinak behar bezala sailkatuz, atal bakoitza dagokion edukiontzian utzi beharko dute, betiere ordenantza honen 23. artikuluan dioena errespetatuz. Gune horietan ere, Udalak biohondakina poltsarik gabe uztea hobesten duen arren, baimenduko du EN 13432:2000 araua betetzen duten poltsa konpostagarrietan ateratzea.	Estos puntos de aportación se han dotado de varios contenedores para depositar cada tipo de residuo y las personas autorizadas para su utilización deberán depositarlos en el contenedor correspondiente, respetando en todo caso lo establecido en el artículo 23 de la presente ordenanza. Aunque también en estos espacios el Ayuntamiento prefiere que se deposite el biorresiduo sin bolsas, permitirá sacarlo en bolsas compostables que cumplan la norma EN 13432:2000.
II. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK	CAPITULO II. RECOGIDAS ESPECIALES
I ATALA. Altzarien, etxeko tresneriaren eta traste zaharren bilketa.	SECCIÓN I. De la recogida de muebles, enseres domésticos y trastos viejos
<i>35. artikulua. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak.</i> 1. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak Garbigunera eraman eta dagokien lekuan utzi behar dira.	<i>Artículo 35. Muebles, enseres domésticos y trastos viejos.</i> 1. Los muebles, enseres domésticos y trastos viejos se deben llevar al Garbigune y depositarlos en el sitio correspondiente.
2. Zerbitzu hori doakoa izango da baldin eta eramaten den hondakin kopurua txikia bada. Mugak Garbigunearen araudiak berak zehaztuko ditu.	2. Dicho servicio será gratuito si la cantidad de residuos es pequeña. La misma normativa del Garbigune marcará los límites.
3. Debekatuta dago beraz, horiek bide publikoan edota beste edozein partzelatan uztea.	3. Queda totalmente prohibido depositar dichos residuos en la vía pública o en cualquier otra parcela.
<i>36. artikulua. Tamaina handiko hondakinaren bilketa.</i>	<i>Artículo 36. Recogida de voluminosos.</i>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>1. Gainera, tamaina handiko hondakinak biltzeko, Udalak atez ateko zerbitzu berezia antolatuko du. Hala, zerbitzu horretaz baliatu nahi duenak, Udalak horretarako jarriko duen telefono zenbaki batera deitu beharko du eta zerbitzuaren arduradunari ondorengo informazioa eman:</p>	<p>1. Además, el Ayuntamiento establecerá un servicio especial de recogida de voluminosos. De manera que, las personas que quieran utilizar dicho servicio deberán llamar al número de teléfono municipal y aportar al personal responsable del servicio la siguiente información:</p>
<p>— Izena, abizena, helbidea eta kontakturako telefonoa.</p> <p>— Zehaztea zer utzi nahi den eta non utziko den.</p>	<p>— Nombre, apellidos, dirección y teléfono de contacto.</p> <p>— Indicar el tipo de residuo que se quiere entregar y el lugar en el que se quiere depositar.</p>
<p>2. Zerbitzu horrek altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik, hau da, garabirik, polearik eta antzekorik erabili behar ez bada.</p>	<p>2. Este servicio recogerá muebles, enseres domésticos y trastos viejos, siempre y cuando no se necesiten recursos mecánicos para ello: Grúa, polea etc.</p>
<p>3. Zerbitzuaren erabiltzaileak Udaletxeko arduradunak adierazitako egun eta orduan utzi beharko ditu hondakinak adostutako lekuan. Ez da telefonoz hitzartutakoa baino gauza gehiago utziko. Bestela, arau-haustetzat hartuko da.</p>	<p>3. La persona usuaria deberá depositar los residuos en el lugar acordado en el día y hora señalados al efecto por el personal responsable municipal. No se depositarán más residuos que los convenidos por teléfono. El incumplimiento de esta prohibición será constitutivo de infracción.</p>
<p><i>37. artikulua. Zerbitzu horren bidez bilduko direnak.</i></p> <p>Esaterako, zerbitzuaren esku utzi daitezkeen hondakinen artean daude:</p>	<p><i>Artículo 37. Residuos objeto de recogida.</i></p> <p>Podrán ponerse a disposición del servicio, a título ilustrativo y entre otros, los siguientes residuos:</p>
<p>— Edozein motatako altzariak: sofak, armairuak, aulkiak, koltxoiak, somierrak eta antzekoak.</p>	<p>— Muebles de todo tipo: sofás, armarios, sillas, colchones, somieres y similares.</p>
<p>— Etxetresna elektrikoak: garbigailuak, hozkailuak, mikrouhin-labeak, telebistak, ordenagailuak, eta abar.</p>	<p>— Electrodomésticos: lavadoras, frigoríficos, hornos, microondas, televisores, ordenadores, etc.</p>
<p><i>38. artikulua. Bilketa zerbitzu horretan jasoko ez diren hondakinen artean daude:</i></p> <p>— Obra-hondakinak.</p> <p>— Zokaloak, egurrak, ateak, leihoak eta abar.</p> <p>— Butano-bonbonak, kanpin gasa eta antzekoak.</p>	<p><i>Artículo 38. Residuos que no serán objeto de recogida por parte de este servicio:</i></p> <p>— Escombros.</p> <p>— Zócalos, madera, puertas, ventanas, etc.</p> <p>— Bombonas de butano, camping gas y similares.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

<p>— Kristalak, txatarra, burdinak.</p> <p>— Inauste-hondarrak.</p> <p>— Pneumatikoak.</p> <p>— Jostailuak.</p> <p>— Hondakin arriskutsuak.</p>	<p>— Cristales, chatarra, hierros.</p> <p>— Restos de podas.</p> <p>— Neumáticos.</p> <p>— Juguetes.</p> <p>— Residuos peligrosos.</p>
<p>II ATALA. Hondakin toxikoak eta oihalak</p>	<p>SECCIÓN II. Residuos tóxicos y textiles</p>
<p><i>39. artikulua. Sukaldeko olioak.</i></p> <p>Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira edo mota horretako hondakinak biltzeko kalean horretarako jarrita dauden edukiontzietara.</p>	<p><i>Artículo 39. Aceite de cocina</i></p> <p>Este tipo de residuos deberán ser trasladados al Garbigune o a los contenedores instalados al efecto en la calle de recogida de este tipo de residuos.</p>
<p>Ezaugarri ezberdinetako olio erabiliak ez dira nahastuko, eta olio erabiliak ez dira nahastuko beste hondakin edo substantzia mota batzuekin, baldin eta nahasketa horrek birsortzea edo birsortzea baino ingurumen-eragina orokor baliokide edo hobea lortzen duen birziklatze-eragiketaren bat eragozten badu.</p>	<p>Los aceites usados de distintas características no se mezclarán, ni los aceites usados se mezclarán con otros tipos de residuos o sustancias, si dicha mezcla impide su regeneración u otra operación de reciclado con la que se obtenga un resultado medioambiental global equivalente o mejor que la regeneración.</p>
<p><i>40. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak.</i></p> <p>Mota horretako hondakinak Garbigune finkora eraman beharko dira edo mota horretako hondakinak biltzeko Udalak erabakiko duen lekuan eta maiztasunez jarritako Garbigune ibiltari edo mugikorrera.</p>	<p><i>Artículo 40. Residuos domésticos peligrosos.</i></p> <p>Este tipo de residuo se deberá depositar en el Garbigune fijo o también en el Garbigune móvil disponible en el sitio y horario establecidos por el Ayuntamiento.</p>
<p>Atal horretan sartzen dira: lanpara fluoreszenteak zein bestelakoak, mugikorak eta horien bateriak, pinturen, disolbatzaileen eta abarren poteak eta abar luze bat.</p>	<p>En este apartado entran: lámparas fluorescentes u otros, móviles y sus baterías, botes de pinturas, de disolventes etc.</p>
<p>Udalak etxeko hondakin arriskutsuen edo haien ezaugarriak direla eta kudeatzen zailak diren hondakinen sortzailea edo edukitzailea behartu ahal izango du ezaugarri horiek ezabatzeko edo murrizteko neurriak hartzera edo horiek modu eta leku egokian uztera.</p>	<p>El Ayuntamiento podrá obligar al/a productor/a o poseedor/a de residuos peligrosos domésticos o de residuos cuyas características dificultan su gestión a que adopten medidas para eliminar o reducir dichas características o a que los depositen en la forma y lugar adecuados.</p>
<p><i>41. artikulua. Pilak.</i></p> <p>Hauek Garbigunera, etxetresna elektrikoek</p>	<p><i>Artículo 41. Pilas.</i></p> <p>Estas podrán ser trasladadas al Garbigune, a</p>



OIARTZUNGO
UDALA

salmenta-puntuetara edo udalerrian horretarako jarritako edukiontzietara eraman ahal izango dira.	los puntos de venta de electrodomésticos o a los contenedores instalados al efecto en el Municipio.
<i>42. artikulua. Oinetakoak eta oihalak.</i> Mota horretako hondakinak Garbigunera edo horretarako egokitutako gunera eraman beharko dira.	<i>Artículo 42. Zapatos y textiles.</i> Este tipo de residuos se deberán llevar al Garbigune o depositar en aquellos sitios dispuestos para ello.
III ATALA. Obra-hondakinak.	SECCION III. Residuos de obra.
<i>43. artikulua. Obra-hondakinak.</i> 1. Kategoria honetan ez dira kontuan hartzen profesionalengandik datozen obra-hondakinak. Horiek eraikuntza- eta eraispén-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren arabera kudeatu beharko dituzte beren obra-hondakinak.	<i>Artículo 43. Residuos de obra.</i> 1. No se contemplan en esta categoría los residuos de obra procedentes de profesionales. Estos deberán gestionar sus residuos de obra de acuerdo con el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición y el Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
2. Erabat debekatuta dago udalerrri honetako edozein lekutan edozein obra-hondakin uztea, Garbigunea salbu.	2. Queda totalmente prohibido depositar los residuos de obra en cualquier punto de este municipio, excepto en el Garbigune.
3. Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira, betiere bolumen eta pisuari dagokionez Garbiguneak zehazten dituen mugak gainditzen ez baditu.	3. Este tipo de residuos se deberán depositar en el Garbigune, siempre y cuando no rebase las condiciones marcadas por el Garbigune en cuanto a volumen y peso.
<i>44. artikulua. Obra-hondakinak edo lurra garraiatzea.</i> 1. Obra-hondakinen edo lurren garraioa behar bezalako baldintzetan egin beharko da, saihestuz betiere, bide publikoa zikintzea. Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.	<i>Artículo 44. Transporte de residuos de obra o tierras.</i> 1. El transporte de residuos de obra o tierras se deberá realizar en condiciones idóneas para ello, evitando siempre ensuciar la vía pública. Se deberán tomar todas las medidas necesarias para ello.
2. Bide publikoa zikinduz gero, garbitu eta aurreko baldintzetan utzi beharko da.	2. En caso de que se ensucie la vía pública se deberá limpiar y dejarlo en condiciones anteriores.
IV ATALA. Garbigunea.	SECCION IV. Garbigune.
<i>45. artikulua. Garbiguneko zerbitzua.</i> 1. Garbigunea etxeko hondakinak eta antzekoak gaika biltzea ahalbidetzen duen zentroa da.	<i>Artículo 45. Servicio del Garbigune.</i> 1. El Garbigune es el centro que posibilita recoger selectivamente los residuos



OIARTZUNGO
UDALA

	domiciliarios y parecidos.
2. Eskaintzen duen zerbitzua doakoa izango da herritarrentzat, zerbitzu hori hondakinen tasen barruan sartuta egongo delako.	2. El servicio que presta será gratuito para la ciudadanía ya que estará incluido en la tasa de residuos.
3. Merkatariek eta industria txikiek ere erabili ahal izango dituzte Garbiguneko zerbitzuak. Horien kasuan, entregatutako hondakinek ez dituzte etxeke hondakinentzako ezarritako mugak gaindituko (Garbiguneko arauetan zehaztuko dira).	3. Los/as comerciantes e industria pequeña también podrán hacer uso de los servicios del Garbigune. En estos casos siempre los residuos entregados no rebasarán los límites establecidos para los domiciliarios (se marcarán en las normas del mismo Garbigune).
4. Garbigunea erabiltzen duten pertsonak edo erakundeek une bakoitzean indarrean dauden San Markos Mankomunitateko arauak bete beharko dituzte.	4. Las personas o entidades usuarias del Garbigune deberán cumplir las normas de la Mancomunidad de San Marcos vigentes en cada momento.
<i>46. artikulua. Garbigunean onartuko diren materialak hauek dira.</i> Adibide gisa, eta San Markos Mankomunitateak instalazioaren kudeatzaile gisa har ditzakeen arauak kalterik egin gabe, hauek izango dira Garbigunean onartuko diren hondakin-motak (jarduera ekonomiko txikiek bakarrik izartxo adierazitako hondakinak uzteko baimena izango dute):	<i>Artículo 46. Materiales aceptados en el Garbigune.</i> A modo de ejemplo y sin perjuicio de las normas que pueda adoptar la Mancomunidad de San Marcos como gestora de la instalación, éstos serán los tipos de residuos cuyo depósito se acepta en el Garbigune (las pequeñas actividades económicas únicamente tendrán autorización para el depósito de los residuos marcados con asterisco):
— Etxeetan egindako obra txikietako eraikuntza-hondakinak eta obra-hondarrak (uralita eta zuntz-zementuzko elementuak izan ezik).	— Escombros de obras domiciliarias menores y restos de obras (excepto uralita y elementos de fibrocemento)
— Plastikozko birziklagarriak (polietilenoko bidoiak, film plastikoa, porexpana).	— Plásticos reciclables (bidones de polietileno, plástico film, porexpan).
— Plastikozko ez-birziklagarriak (pertsianak).	— Plásticos no reciclables (persianas,).
— Tamaina handiko etxeke tresnak (koltxoak, sofak, somierrak).	— Enseres domésticos voluminosos (colchones, sofás, somieres).
— *Metalak eta txatarra	— *Metales y chatarra.
— Kimaketa-hondakinak eta lorezaintzako hondakinak.	— Poda y jardinería.
— Egurrak (paletak, altzariak, kaxak, oholtzak).	— Maderas (palets, muebles, cajas, tablas).
— Beira laua (kristala).	— Vidrio plano (cristal).



OIARTZUNGO
UDALA

— *Kartoizko bilgarriak.	— *Embalajes de cartón.
— *Etxeko papera eta kartoia	— *Papel y cartón domiciliario.
— *Etxeko ontziak (plastikozkoak, metalezkoak eta brikak).	— *Envases domésticos del hogar (plástico, metálicos y brik).
— *Beira-ontziak.	— *Envases de vidrio.
— *Ehunak.	— *Textiles.
— Auto eta motorretako pneumatikoak, metalezko zatietatik edo hagnetatik bereizita. Gehienez erabiltzaileko 5 unitate.	— Neumáticos de coche y moto, separadas de las llantas o partes metálicas. Máximo 5 unidades por usuario.
— *Aparatu elektriko eta elektronikoak (ordenagailuak, telebistak, irriak, telefonoak).	— *Aparatos eléctricos y electrónicos (ordenadores, televisores, radios, teléfonos.).
— *Lerro zuriko etxetresna elektrikoak (garbigailuak, sukaldeko etxetresna elektrikoak).	— *Electrodomésticos de línea blanca (lavadoras, electrodomésticos de cocina).
— Jostailuak.	— Juguetes.
— Etxeko hondakin bereziak.	— Residuos especiales del hogar.
— Sukaldeko olio erabilia (ontzi itxian).	— Aceite de cocina usado (en envase cerrado).
— Automobilgintzako olio erabilia (ontzi itxian). Kopuru onargarria erabiltzaileko eta hilabeteko 5 litrorara mugatzen da.	— Aceite usado de automoción (en envase cerrado). Se limita la cantidad admisible a 5 litros por usuario y mes.
— Metagailuak: auto-bateriak eta metagailuak, oro har.	— Acumuladores: baterías de coches y acumuladores en general.
— *Fluoreszenteak eta lanparak.	— *Fluorescentes y lámparas.
— *Pilak.	— *Pilas.
— Inprimagailuetako tonerren karkasak.	— Carcasas de toners de impresoras.
— CDak eta DVDak.	— CDs y DVDs.
— Etxeko gainerako hondakin arriskutsuak: pintura-ontzi itxiak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, fitosanitarioak, aerosolak.	— Resto de residuos peligrosos de origen doméstico: envases cerrados de pinturas, barnices, disolventes, colas, fitosanitarios, aerosoles.
Hondakinak eramateko bolumenari eta pisuari dagokionez muga dago: pertsonako eta asteko ezin dira 2 m ³ eta 250 kg baino gehiago eraman;	Hay un límite de volumen y peso para llevar los residuos: no se podrán llevar ni más de 2 m ³ , ni más de 250 kg por persona y semana;



OIARTZUNGO
UDALA

<p>500 kg. obra-hondakinen kasuan. Bakarrik 3.500 kilotik beherako gehieneko pisu baimendua (GPB) duten ibilgailuek deskargatu ahal izango dituzte hondakinak.</p>	<p>500 kg. en caso de escombros. Sólo se permitirá la descarga de residuos a vehículos de peso máximo autorizado (PMA) inferior a 3.500 kilos.</p>
<p><i>47. artikulua. Garbiguneak ez ditu material hauek onartzen.</i></p> <p>— Hartzi daitekeen hondakin organikoa.</p> <p>— Sendagaiak: farmazietara eramango dira, bertako gaikako bilketarako ontzietara.</p> <p>— Industria-hondakinak: kudeatzaile baimenduen bidez.</p> <p>— Bereizi gabeko hondakinak.</p>	<p><i>Artículo 47. El Garbigune no admite estos materiales.</i></p> <p>— Residuo orgánico susceptible de fermentación.</p> <p>— Medicamentos: se llevarán a las farmacias, a sus envases de recogida selectiva (SIGRE).</p> <p>— Residuos industriales: mediante entidad gestora autorizada.</p> <p>— Residuos indiferenciados.</p>
<p>III. KAPITULUA. INDUSTRIA, TAILER ETA GAINERAKO JARDUERA EKONOMIKOETAKO ERABILERA DUTEN EREMUETAN UDAL-HONDAKINEN BILKETA</p>	<p>III. CAPITULO: RECOGIDA DE RESIDUOS MUNICIPALES EN INDUSTRIAS, TALLERES Y OTROS LOCALES SITOS EN ÁMBITOS CALIFICADOS COMO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS</p>
<p>A. ATALA. Derrigorrez hondakinak jatorrian bereiztea eta bilketa zerbitzua</p>	<p>SECCIÓN A. Separación obligatoria en origen de los residuos y servicio de recogida.</p>
<p><i>48. artikulua. Hondakinak bereiztuta atera behar zaizkio bilketa zerbitzuari.</i></p> <p>Etxeko hondakintzat hartuko dira zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeen hondakinak; hau da, etxebizitzetan, merkataritzan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak bezalakoak badira.</p>	<p><i>Artículo 48. Obligación de depositar separadamente los residuos por parte de la persona usuaria del servicio.</i></p> <p>Se consideran residuos domésticos los similares a los anteriores generados en servicios o industrias; es decir, siempre que puedan asimilarse a los generados en domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios.</p>
<p>Hondakinen hasierako ekoizleak edo beste edukitzaile batzuk behartuta daude hondakinen tratamendu egokia ziurtatzera, Ekonomia Zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.</p>	<p>Las personas productoras iniciales u otras poseedoras de residuos están obligadas a asegurar el tratamiento adecuado de sus residuos, de conformidad con lo establecido en el artículo 20 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de Residuos y Suelos Contaminados para una Economía Circular.</p>
<p>Hondakinak bereizturik utzi behar zaizkio bilketa zerbitzuari. Hondakin horiek dira Udalak ezarriko duen bilketa zerbitzuak bakarrik jasoko dituenak:</p>	<p>La persona usuaria del servicio estará obligada a depositar separadamente los residuos. Los residuos que admitirá el servicio de recogida implantado por el Ayuntamiento son los siguientes:</p>
<p>1. Biohondakinak, lorategi edo kimaketetako</p>	<p>1. Biorresiduos, con excepción de los restos de</p>



OIARTZUNGO
UDALA

hondakinak izan ezik.	poda y jardinería.
